


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 12a / 552. zenbakia



SAN MARTIN JAIAK

Barazki, fruta, lora eta gazta azoka zapatuan

KULTURA: NAROA ENKOTEGIRI ELKARRIZKETA/8 • KIROLAK: BERGARA-TOLOSA BIHAR AGORROSINEN/9

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA-ARTXIBOA




San Juan 1 A.
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



JANTZIDENDA

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA


ATREBENTZIAEZPADA/ Zer da gehixen gustatzen jatzuna ferixetatik? Ezer erosten dozu?




ROSARIO GARITANO
63 urte



VICTOR RUBIO
83 urte



ERLANTZ OLABARRIA
21 urte



JOANA ARANSAEZ
24 urte



MARI CARMEN BOYER
61 urte



MARTA CASTRO
45 urte

Gehixen gustatzen jatena hemengo produktuak die; hemengo baratzetak: frutia, barazkixak... Baba berrixa urtero erosten dot, eta gaztaia eta piparrak be bai.

Gustatzen jat bueltatxo bat emotera jutia. San Martiñetan ez da egoten, baiña neri, ganadua da gehixen gustatzen jatena. Bestela, musikia eta kaleko girua be gustatzen jat.

Badakit San Martin ferixan ez diela egoten, baiña neri, gehixen ganadua eta artisautza gustatzen jat. Eskuz egindako gauzak asko gustatzen jat. Emongo dot buelta bat ferixan.

Buelta bat emotera jutia gustatzen jat, postuak ikustia... Frutiak emoten dost neri atentziñua, egoten dien sagar mota danak. Erosi be egitten dot zeozer: gaztaia, esaterako.

Hara eta hona postu artian begira ibiltzia gustatzen jat. Postu danak gustatzen jat: frutia, barazkixak, gaztaia, lorak... Erosi be egitten dot, normalian. Batez be, gaztaia.

Normalian lan egin bihar izaten dot, baiña ahal izan dotenian jun izan naiz. Batez be frutak eta lorak gustatzen jat. Daren mota danak eta eukitzen daben tamaiñua eta koloria.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK LOTSAGARRIA Halaxe definitu du irakurle batek Bergararik Elgetarako bidean portua igotzen hasi eta berehala dagoen bihurgunea. Denbora luzea darama sekulako zuloarekin. Beherakotan nabari da, batez ere, eta irakurlearen esanetan, oso arriskutsu dago; edozein egunetan istripuren bat gertatzeko moduan. Dagokionak konpontzeko garaia dela gehitu du. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6-7

KIROLAK /9

KULTURA /12

San Martin jaiak

Gaur hasi eta martitzenera bitartean, hainbat ekitaldi egongo dira San Martin jaien barruan.

Bergara Hiria

Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa jokatu da domekan Ipintza institutuan.

Narrea Enkotegei

Lekeitioko mezzosopranoak emanaldia egingo du gaur, egubakoitz, 20:00etan, Mariaren Lagundian.

ASTEKO DATUA

3

ARROPA BATZECO JARRI DITUZTEN EDUKIONTZIAK

Debagoieneko Mankomunitateak jarritako zerbitzu berria da. Kolore zuriko edukiontzia dira. Helburua da etxean dugun arropa zaharra jasotzea, behar dutenei emateko, besteak beste.

BESTE EKESANA

“Kultura maila osatu eta sendotu nahi duen 18 urtetik gorako edozeinek du lekua Helduen Eskolan. (...)

Aukera ezberdinak daude. Alde batetik, Unibertsitatean karreraren bat ikasten hasi nahi duten 25 urtetik gorako pertsonak, unibertsitateko sarrera-azterketarako prestatzeko aukera dute. Bestalde, bere egunean Eskola Graduatua atera ez zutenek, orain, DBHko titulua eskuratzeko aukera dute, kurtso batean edo bita. Oso garrantzitsua da DBHko titulua edukitzea, ate asko zabaltzen dituelako, bai lana bilatzeko orduan edota moduluren bat ikasten jarraitu ahal izateko. Gaur egun, gainera, gero eta enpresa gehiagotan exijitzen dute DBHko titulua, kontratu finkoa egiteko”.
GURUTZE ARANA / Helduen Eskolako zuzendaria 'Kontzejupetik' /03-09

BERAIEK DIÑO / Andres Osa "Sakona"



Ikasturtea

Ikasturte berriari hasiera eman zaio. Luze, zabal, sakon eta urgentziaz debatitzeko gaia da jarraian aipatuko duguna baina kurtsoaren hasieran gaudenez gain ginetik, bederen, aipatzeko pasatzerik ez guke gura. Egungo hezkuntza sistemak gizarteko beharrei erantzuteko balio al du? Gaztetxoaren beharretara egokitu al dago? Gogoeta laburtxo bat doakizue.

Bi jo muga ditu, eskuarki gaurko Hezkuntza Sistemak: Unibertsitate-ara begira, bata, eta bestea, Lanbide Heziketara. Lehenbizikoaren ardatzean funtzionatzen du ia-ia hezkuntza sistema osoak. Profesionalen pentsamoldea ere horretara eginga dago. Gurasoena zer esanik ez. Haurtzaindegitik unibertsitate-tera horra hor errutinazko ibilbidea.

Gaztetxo asko eta asko DBH burutu ezinean ikusten ditugu. Gaintzen ez badute ateak itxita dituzte. Eskola porrota

tarteko milaka gaztetxo noraezean galduta aurkitzen dira. Izan ere egungo sistemak ikasle multzo hori hitzaldi eta adierazpenetan bakarrik hartzen du kontutan.

Lanbide Heziketa, salbuespenak salbuespen, "nahiko" batera ez da heltzen ez ugari-tasunean gutxiago kalitatean. Oraindik oraintsu hasi dira testu liburuak, banaka batzuk, euskaraz erabiltzen. Irakaskuntza osoa portzentaje handi batetan erdara hutsean egiten da. Bestalde eta adibide gisan, oso oker ez

gara ibiliko, atzerrian unibertsitate-ara ehuneko 40 ikasle badoaz eta ehuneko 60 Lanbide Heziketara hemen zenbakiak inbertitu egiten dira. Gauzak honela nola erantzun ongi hiru sektoreen beharrei, bereziki bigarren goari? Industria alorrean benetako garapena lortu nahi bada ezinbestekoa da jendea prestatzea. Irakaskuntzan iraultza behar da erreformaren orde.

“Egungo hezkuntza sistemak gizarteko beharrei erantzuteko balio al du?”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 12
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ZAPATUA, 13
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 14
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 15
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA, 16
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUAZTENA, 17
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUENA, 18
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaltzia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal Euskaltzia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta lanegunak:	Zapatuak: 20:00.
19:00.	Angiozar
Sierbak	Domekak: 11:30.
Lanegunak: 19:15.	Moja Zaharrak
Zapatuak:	Lanegunak: 09:00.
19:00.	Zapatuak: 11:00.
Domekak:	Mizpirualde
11:30, 13:00.	Lanegunak: 11:45.
Osintxu	Zapatuak: 17:30.
Domekak: 12:30.	Antzuola
Zapatuak: 19:00.	Domekak:
Elosu	09:00, 11:30.
Domekak: 10:30.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOAK
1948an jaiotako enafaria irailaren 20an Zabala jatetxean, 21:00etan. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztientako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zerbakian.

XIPIZARO LUDOTEKA
Ikasturte berria irailaren 17an hasiko da. Izenematea Seminarioko lokalean egin daiteke, 17:15etik 19:30era. Argibideak 943 76 23 76 telefono zerbakian.

ARGAZKI LEHIAKETA
Kultur Hamabostaldiari begira, San Xosepe erretiratuen elkarteak Argazki Lehiaketa deitu du. Lanak irailaren 22ra arte jasoko dira. Argibideak: 943 76 30 09.

SAN JOXEPEREN IRTEERA IRAILAREN 25EAN
San Xosepek Larrunera eta Hondarribiara irteera antolatuko du irailaren 25erako. Bazkaria Larrunen egingo dute eta arratsaldea Hondarribian emango dute. Izenematea irailaren 19ra arte zabalik.

JARDUNENAGENDA

BEGIRALEEN LAN-POLTSA
Jardunek begiraleen lan-poltsa osatu nahi du, 9 eta 16 urte arteko gazteendako, aste bukaeretan antolatzen dituen jardueretako. Curriculumak Errotaldeko bulegoan aurkeztu beharko dira. Argibideak Jardun elkartearen edo 943 76 08 19/943 76 36 61 telefono zerbakietan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki indiegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Aitor Zabaleta gidariak irabazi zuen Gorlako Igoera

Aitor Zabaletak irabazi zuen 1993ko irailaren 12an jokaturako Gorlako Igoera. Bezperako entrenamenduetan Pantxo Egozkue nafarra izan zen onena, eta ibilbideko errekorra hautsi zuen. Hala ere, zibarena (tronpoa) egin zuen bigarren txandan, eta Zabaletak ez zuen hutsik egin.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

“Umeterixia”

1. Ume mordua.
—Bostak aldian sekulako umeterixia izaten da ikastola aurrrian.

2. Umeak, haurrak, orokorrean.
—Umeterixia ziero lelotuta dago telebisiñuakin.



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

‘FEMME FATALE’

ZUZENDARIA: BRIAN DE PALMA. AKTO-REAK: REBECCA ROMUIN-STAMOS, ANTONIO BANDERAS.

HARIA. Cannesko Zinema Jaialdian gaizkile talde batek lapurreta egingo du; baina haietako batek diru guztia hartu eta ihes egingo du. Haren atzetik joango dira besteak...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:30ean; eta martitzenean, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



‘SIMBAD’

ZUZENDARIA: TIM JOHNSON.

HARIA. Batez ere, adin txikiek zuzendutako marrazki bizidunetako filma. Simbad eta Marina itsas bidaia egitera joango dira, Proteus laguna salbatzera, eta bidaia horretan era guztietako abenturak bizi izango dituzte. Simbadek eta Marinak trebezia handia erakutsiko dute itsasoan azalduko diren zailtasunak gainditzeko.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, domekan eta martitzenean, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA MARGOAK



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GAZTETXEA/ Hamabost bat egunen buruan lanak guztiz bukatuta egotea espero dute

Gaur zabalduko dute gaztetxea, lanak bukatuta ez dauden arren

MONIKA BELASTEGI


Gaur, egubakoitza, zabalduko duten arren, ez dituzte oraindik eraikinaren berritze lanak bukatu. Hasiera batean gaurko lan guztiak bukatuta egotea espero zuten gaztetxeako kideek; arotzeria lanetan izandako atzerapenak hamabost bat egun luzatuko ditu lanak.

Lanak bukatzeko azken ukituak besterik ez da falta, arotzeria eta margotze lanak, hain justu ere. Arotzeria lanak izan dira, hain zuzen, lanak guztiz bukatuta ez egoteko arrazoia. Izan ere, Bergarako gaztetxeako kideek gaurko lanak guztiz bukatuta egongo zirela uste zuten. Hala, arotzeria lanak bukatu eta gero, margotze lanak egingo dituzte, eta horrek guztiak hamabost bat egun iraungo duela azaldu diete gaztetxeako kideei.

Lan txikiak direnez falta direnak, gaur zabalduko ditu ateak gaztetxeak, eta hurbiltzen denak gaztetxe berritua ikusteko aukera izango du.

Lan sendoenak kartzelariaren etxean egin dituzte, horixe zen-eta egoera kaskarrean zegoena. Beheko solairuan taberna eta komunak egokitu dituzte, baita lehen solairura igotzeko eskaileak eta igogailua ere. Lehen solairuan aldagelak eta hiru gela handi egin dituzte. Eta gela horiei askotariko erabilera emango diete gaztetxeako kideek: batean sukaldea jarriko dute; bestean, Txapa Irratia; eta hirugarrena tailerretarako erabiliko dute.

Txapa Irratiari dagokionez, Zabalotegiko egoitza utzi eta gaztetxean egokitutako gelara joango dira laster. Irratiko kideek azaldu dutenez, hasi dira gazte-



AITOR URIZAR

Gaztetxea egokitzeko lanek 142.000 mila euro inguruko aurrekontua izan dute.

txeko gela berrira gauzak eramaten, eta irailaren 20an hasiko dira, seguruenik, egoitza berritik emititzen.

Kartzelariaren etxeari dagokionez, ekitaldietarako areto izan

ten jarraituko du. Egingako hobekuntzen artean, besteak beste, ziegetako batean zeuden komunak kendu egin dituzte eta berogailu eta argiteria sistema berriak jarri dituzte.

KANPOALDEAN ERE HOBEKUNTZAK

Gaztetxearen inguruan ere hainbat hobekuntza egin dute. Besteak beste, gutxituei sarrera errazteko aldapatxoa egiten dihardute Burrerixatik gaztetxe aurrera.

Lanak gaurko guztiz bukatuta egon behar zuten, baina hamabost bat egun atzeratu dira

Egin beharreko lanak txikiak direnez, gaur zabalduko dute gaztetxea

San Martin jaiak direla-eta, hainbat ekitaldi egongo dira gaurtik martitzenera arte

LABUR

BAk Udalean izateko proposamena egin die gobernu taldeei

Legedia errespetatuz Udalean ordezkari izateko aukera dagoela azaldu dute Bergara Aurrerako kideek, eta proposamena egin diete Udal Gobernu taldeei, EAJ/EA eta Aralarri. Eta orain erantzunaren zain daude. BAK esan du hauteskundeetan lortu zituzten hiru ordezkariak errespetatzeko modu legala badagoela, orain borondate politikoa besterik ez dela falta. Proposamena hauxe da: Aralarren kasuan hirugarren zinegotzitik beherakoek dimititzea eta EAJ-EAren kasuan, zortzigarrenetik aurrerakoek. Eta, horrela, hutsik geratuko liritekeen hiru zinegotzi karguak Bergara Aurrerako zinegotzi-ekin osatzea, korporazioak dituen 17 zinegotzien kopurua osatzeko. Hori egin ez gero, hiru zinegotziotako bat Aralar larko Udal taldearena izango litzateke eta beste biak, EAJ-EArenak. Hori ekiditeko, talde mistora pasatuko liriteke BAKo hiru ordezkariak.

EHEk antolatutako manifestazioa bihar, zapatua

Bergarako epaitegian euskaraz lelopeko manifestazioa antolatu du EHEk. Bihar, zapatua, izango da, 19:30ean, San Martin plazan.

'No apartheid' manifestazioa astelehenean

No apartheid. Autodeterminazioa lelopean manifestazioa egongo da astelehenean, 19:00etan, San Martindik abiatuta.



Arropa jasotzeko edukiontzi berriak

Debagoieneko Mankomunitateak etxean soberan ditugun arropak lagatzeko hiru edukiontzi jarri ditu herrian: Matxiategin, hilerriko aparkalekuaren ondoan; azokan, sarreratik gertu; eta Zubiaurren, zubiaren ondoko zuhaiztian. Arropaz gain, oinetakoak, gerrikoak, oihalak eta izarak bota daitezke. Betiere, utzitako guztia plastikozko poltsa itxietan sartu behar da, jasotzeko orduan eta garraiatzerakoan busti ez dadin. Besteak beste, beharra dutenei emango diete.

Jabi Lazkanoren aldeko hainbat ekitaldi antolatu dute

M.B.

Aurtengo abuztuaren 6an hamar urte bete dira Jabi Lazkano kartzelan dagoela. Hori horrela, haren aldeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Besteak beste, Su ta Gar taldeak emanaldia egingo du gaur.

Alcacer de San Juan espetxean dago gaur egun Jabi Lazkano, baina hamar urteotan Alcalan eta Valdemoron ere egon da. Bestalde, Askatasunak azaldu duenez, espetxeetako erredentzioa ezarri izan baliote zigorraren hiru laurdenak eginda izango litzuke Jabi Lazkanok.

Lazkanoren omenezko hainbat ekitaldi antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, manifestazioa egongo da San Martin plazatik abiatuta, 19:30ean. Ondoren, ekitaldia egingo dute. 22:30ean, Su ta Gar taldearen kontzertua egongo da gaztetxean. Sarrerak 6 euro balio du.

Hilaren 19an mendiko diapositiba emanaldia egongo da Pol-Polen, 22:30ean. Hilaren 21ean, berriz, mendi ibilaldia egingo dute Irukurutzetara. 08:00etan abiatuko da San Martin plazatik, eta gero, bazkaria egongo da Artatse elkartean. Bazkarirako txartelak Arranon eta Pol-Polen eros daitezke.

SAN MARTIN JAIK / Egubakoitzean hasi eta martitzenera bitartean hainbat ekitaldi izango dira jaietz ondo gozatzeko

San Martinak 2003

MONIKA BELASTEGI

Gaur hasi eta martitzenera bitartean San Martin jaietan murgilduko gara. Ekitaldi ugari izango dira ondorengo eguntan: musika, antzerkia, danborrada eta urteroko barazki, fruta, lore eta gazta lehiaketa. Horrekin batera, hainbat berritasun ere izango dira.

Ohiko ekitaldiez gain, hainbat berritasunekin datoz San Martinak: besteak beste, Naroa Enkotegei mezzosopranoaren kontzertua, gaztetxearen irekitzea eta han izango diren ekitaldi guztiak eta Dantza Suelto Txapelketaren egun eta ordu aldaketa.

Gaur, egubakoitza, egingo du Naroa Enkotegei mezzosoprano lekeitiarrak emanaldia. Mariaren Lagundiko elizan izango da, 20:00etan. Bestalde, orain artean egubakoitzetan izan den arren, Dantza Suelto Txapelketa domekan egingo dute aurten. 12:30ean izango da txapelketa, San Martin plazan.

BARAZKI, FRUTA, GAZTA ETA LORE MOZTUEN LEHIAKETA

San Martin jaietan ekitaldi esanguratsurik bada, hori zapatu goizeko barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa da. 10:00etan hasiko da, eta, ohi bezala, Bergarako eta inguruko baserrietako produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da San Martin plazan jarriko dituzten postuetan. Lehiaketaren sari banaketa 13:30ean izango da, eta goiz osoan barrena Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak kaleak alaitzen jardungo dute. Horrez gainera, 13:00etan, Jose Agirre eta Txomin Garmendia bertso-lariak saioa egingo dute San Martin plazan.

Horrekin batera, Bergarako odolosteen dastatzea izango da, 11:00etatik aurrera, San Martin plazan. Dastatzea Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Pello Urtzelai harakinek antolatu dute, Udaren laguntzarekin, baita odolostek eman ere. Hori guztia



Zapatuan 13:30ean banatuko dituzte barazki, fruta, lore eta gazta lehiaketako sariak.

JESUS JAUREGI /ERREILENO ETA TOSTOIEK KOFRADIAKO PRESIDENTEA

"Gure asmoa da erreilenoak eta tostoiak ezagutzera ematea"

Zein da kofradia baten helburua?

Produktu bat defendatzeko eta promozionatzeko helburuarekin jaiotzen dira. Gure kasuan, oso bergararrak diren tostoiak eta erreilenoak ditugu, eta gure helburua da horiek zabaldu eta ezagutzera ematea.

Zein dira aurtengo kapituluaren berritasunak?

Gutxi, kapitulua azken batean urteko

asanblada orokorra da, eta berritasun gutxi du.

Nongo kofradiak etorriko dira?

Hogeitabat etorriko dira eta hiru berriak dira: Bordelekoa, Baionako urdaiazpikoa eta Donibane Lohizuneko Euskal Kortsarioak. Gainerakoak aurreko urteetan ere etorri izan dira: Idiazabalgo gazta, Eibarko bakailaoa...

Ohorezko lau kide izendatuko dituzue.



Gu, ohituraz, saiatu izan gara Bergarako jendea izendatzen ohorezko kofradiakide; edo bertakoa izan ezean, inoiz Bergararen alde lan egin due-

na izatea; behintzat. Eta horren barruan izan daitezke, bada, artistak, kirolariak, entitateak eta jende herrikoia. Aurten hauek izendatuko ditugu: Jose Antonio Zabala zena; ez alkate izan zelako, ezindu psikikoen alde egin zuen lanagatik baidzik. Urretxindorrek musika taldea, bere garaian euskararen alde egin zuen lan guztiagatik eta Bergararen izena hainbat tokira zabaltze-

agatik. Jende gazteak ezagut ditzan nahi izan dugu. Miguel Sagastume, oso gizon ezaguna; musikaria, mendizalea, kirolzalea... Eta, azkenik, San Antonioko Gure Ametsa elkarteak, 30 urteotan lan handia egin duelako kultura eta gastronomia bultzatzen. Gainera, egoitza lagatzen digute bileretarako.

Zenbat kide zarete kofradian?

Hogeita sei.

INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK

Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87

PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN ESKAINTZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK

alaitzeko, Jarduneko trikiti taldea ibiliko da herriko kaleetan barrena.

OKELA, LEHIATZEKO ETA DASTATZEKO
Zapatuak ekarriko duen beste ekitaldietako bat Okela Gisatuaren Debagoieneko IV. Lehiaketa da. Gipuzkoako Harakin eta Txarkuteroen elkarrekin antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Arratsaldean izango da lehiaketa, 17:00etan, hain zuzen, San Martin plazan, eta Jon Leturia harakinak azaldu duenez, sei elkarrek eman dute izena: San Juan, Basalago, Umore Ona, Altzasu, Gure ametsa eta Antzuolako Trekutz. Okelarekin jarraituz, 20:30ean txahalaren saihestasun dastatzea izango da, Seminarioan, Giokelaren babesarekin.

NAGUSIEN ETA HAURREN DANBORRADAK
Bi asteen barrena hainbat entsegu egin ondoren, astelehenean, 22:30ean abiatuko da nagusien danborrada. Seminarioko jolas-tokitik aterako dira, eta herriko kale nagusietan barrena ibili ondoren San Martin plazara iritsiko dira.

Martitzenean, berriz, umeen danborrada izango da. Hauek ere, hainbat entsegu egin dituzte Seminarioan. 18:00etan abiatuko dira Seminarioko jolaslekutik eta 15:00etik gora umek hartuko dute parte. Herrian ibilbidea eginez San Martin plazara iritsiko dira.



Astelehenean 22:30ean hasiko da nagusien danborrada, eta zortzi taldek hartuko dute parte.

15:00etan. Bazkarirako ez dago izena aurrez eman beharrik. Bazkaldu ondoren, xake, mus eta partxis txapelketak egongo dira. Izena bertan eman behar da: musa eta partxisa 6 euro eta xakea, berriz, 3 euro.

Etzi, domeka, antzerkia egongo da. 20:00etan, Interruptus taldeak *El gran kabaret* lana egingo du, Munibe plazan. Astelehenean, berriz, kontzertua egongo da gaztetxean. 23:00etan hasiko da eta hainbat taldek hartuko dute parte.

HAINBAT EKITALDI PAULO ELKOROREN ALDE

Alemaniatik estraditatu izan daitekeela-eta, Paulo Elkorogose greban dago irailaren 1a ezkeror. Hori horrela, haren aldeko hainbat ekitaldi izango dira San Martinetan. Batetik, prentsaurrekoa egingo dute Pauloren lagunek martitzenean, hilak 16, 17:30ean, Munibe plazan, Elkororen egoeraren berri emateko. Horrez gain, postalak aterako dituzte, eta San Martin plazan eta tabernetan egongo dira eskuragarri. Postalok Alemaniako atzerri ministroari zuzenduta daude. Bestalde, eguaztenero elkarretaratzeak egingo dituzte, 19:30ean, San Martin plazan.

San Martin jaietako egitaraua

ERREILENO ETA TOSTOIEKOFRADIA
Erreileino eta Tostoiak Kofradiak ere egun handia ospatuko du San Martin jaien barruan; domekan, hain justu ere. 09:30ean, beste herri batzuetatik etorriko diren kofradiei ongietorria egingo die Udal Pilotalekuan. Ondoren, martxa egingo dute, zeremoniako jantziekin, Udal Pilotalekutik Monja Klaratarren komenturaino. Han meza izango da, Alai-Taldeak abestuta. Gero, herri-desfilea izango da, eta 12:15ean kofradiako IV. Kapituluak egingo dute Udaleko osoko bilkuren aretoan. Aurten honako hauek izendatuko dituzte ohorezko kofradiak: Jose Antonio Zabala alkate izandakoa, Urretxindorrek musika taldea, Miguel Sagastume eta Gure Ametsa elkarrekin.

TXOSNA BATZORDEAK ERE BADU SAN MARTIN EGITARAUA
Txosna batzordeak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu San Martinetan jaietarako. Bihar, zapatua, bazkaria egongo da, gaztetxean,

EGUBAKOITZA, irailak 12

20:00: Naroa Enekotegi mezzosopranoaren emanaldia Mariaren Lagundiko elizan.

ZAPATUA, irailak 13

10:00: Barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa San Martin plazan.

11:00: Jarduneko trikitalari taldea irtengo da herriko kaleak alaitzera.

Ordu berean, Bergarako odolosteen dastatzea San Martin plazan, Giokela barruan dauden Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Pello Urzelai harakinek antolatuta.

17:00: Bonba japoniarrak, haurrentzat, San Martin plazan. Ordu berean, Okela Gisatuaren Debagoieneko IV. Lehiaketa San Martin plazan, Gipuzkoako Harakin eta Txarkuteroen Elkarrekin antolatuta.

17:30: Bergarako Erraldoi, Kiliki eta Buruhandien konpartaren kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainari taldeak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar, Barrenkalea eta San Martin plaza.

19:00: XIII. San Martin herri krosa herriko kaleetan barrena, San Martin plazatik abiatuta.

20:30: Txahalaren saihestasun dastatzea San Martin plazan.

23:00-02:00: Rock kontzertua San Martin plazan, Kañeria 13 eta Des-kontrol taldeekin.

DOMEKA, irailak 14

09:00: Ageriko 30. Pintura Lehiaketa, Beart elkarrekin antolatuta, kultura etxean. 18:30ean sari banaketa izango da, eta gero, aurkezutako lanen erakusketa zabalduko dute kultura etxean.

09:30: Erreileino eta Tostoiak Kofradiako IV. Kapituluak.

- 09:30: Kofradiei ongietorria Udal Pilotalekuan.
- 10:45: Martxa, zeremoniako jantziekin, Udal Pilotalekutik Moja Klaratarren komenturaino, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- 11:00: Meza, Alai-Taldea abesbatzak abestuta.
- 11:45: Herri desfilea, San Martin plazaraino, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- 12:15: Kofradiako kapituluak, udaletxeko areto nagusian.

12:30: Bikoteen Dantza Suelto XIX. Txapelketa, Moises Azpiazuren oroimenez, San Martin plazan, Moises Azpiazu taldeak antolatuta.

12:30: Kofradiako kapituluak, udaletxeko areto nagusian.

12:30: Bikoteen Dantza Suelto XIX. Txapelketa, Moises Azpiazuren oroimenez, San Martin plazan, Moises Azpiazu taldeak antolatuta.

ASTELEHENA, irailak 15

19:00: Gorringo taldearen eskutik haurrendako *Tristeak kontsolatzeko makina* kale antzerkia San Martin plazan.

22:30: Nagusien danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta.

Seminarioko patiotik abiatu eta herrian barrena San Martin plazaraino.

24:00-04:00: Dantzaldia Zugan taldearekin San Martin plazan.

ASTEARTEA, irailak 16

08:30: Diana Udal Txistulari Bandarekin.

09:00: Sokamuturra herriko kaleetan.

11:00: Meza nagusia San Pedro elizan.

11:15: Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

Egitaraua:
Arsenal. Martxa
J.V. der Roost
Zampa. Obertura
F. Hérold
Nagasaki 1579
M. Gz. Bastida
Porgy and Bess. Operetako aukeraketa
G. Gershwin
San Martin. Euskal estanpak
M. Gz. Bastida

18:00: Haurren Danborrada, Musika Eskolako Bandak lagunduta, Seminarioko patiotik San Martin plazaraino.

19:15-22:15: Disko festa, Biduri Sound disko jartzailearekin, San Martin plazan.

22:30: Suzko erruberak Agorrosinen, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

AR DATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

FUTBOLA

Bergarak Tolosa hartuko du zapatuan Agorrosinen, etxeko lehen partiduan

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak 0-0 egin zuen domekan Berion, aurtengo ligaren hasieran

EDU MENDIBIL

Domekan Berion berdinketa lortu ondoren, Bergara KEko preferente mailako taldeak Tolosaren aurka jokatuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:30ean. Bi taldeak sailkapeneko aurreneko tokietan izan ziren aurreko denboraldian.

Tolosarrek sailkapeneko bigarren postuan amaitu zuten azken Liga Txapelketan, mahoneroen aurretik, hain zuzen ere; aurten, berriz, ez diote amaiera onik eman ligari, domekan Santo Tomas Lizeoren aurka galdu egin zuten-eta, Berazubín, 1-2. Hala ere, igora lortzeko talde faboritoetako bat dugu Tolosa. Bergararrek ere borroka horretan egon nahi dute, eta, beraz, bi taldeen maila neurtzeko aukera izango da bihar Agorrosinen. Tolosarren azken bisitan mahoneroak nagusitu ziren, 1-0. Juanina Garai Bergarako entrenatzaileak hiru puntuak lortu nahi ditu bihar. Tolosak, berriz, lehen jardunaldian galdutakoa berreskuratu nahi izango du. Tolosako entrenatzailea Herri Irratian eta TeleDonostin agertzen den Gorka Etxeberria da.

ESTREINALDI ONA BERION

Esan bezala, Bergarak 0-0 egin zuen domekan Donostian, Berion aurka. Garai entrenatzaileak

zera adierazi digu: "Oso gustura geratu nintzen jokalariek egin-dako lanarekin. Uste baino hobeto aritu zen taldea eta ezusteko atsegina hartu nuen. Emaitza justua izan zela esango nuke. Beharbada baloia hanketan genuela ez ginen horren fin ibili, eta hainbat gol aukera huts egin genuen. Baina euren atezaina oso ondo ibili zen eta ez genuen golik egiterik izan. Hala ere, pozik nago lortutako emaitzarekin. Ea zapatuan denboraldiko lehen garaipena lortzen dugun".

Domekan jokari hauek jarri zituen Garaik jokoan: Markel Egaña; Julen Berraondo, Aritz Agirre (Xabi Lete, 20.min.), Markel Lazpiur, Aitor Berraondo; Oskar Maiztegi, Mikel Otero (Unai Agirre, 75. min.); Josu Zubikarai (Iñaki Muxika, 57. min.), Jon Altzola, Gorka San Vicente; Iban Unanue (Julen Aranburu, 86. min.). Aritz Agirrek zelaia utzi behar izan zuen 20. minutuan; uzkuradura (tiroia) izan zuen.

Biharko partidurako Oier Loiola taldera itzuliko da, partidu bateko zigorra bete ondoren. Josetxo Lizarralde eta Jon Sanchezek, berriz, lesionatuta jarraitzen dute. Jokalariek lau entrenamendu egin dituzte astean zehar. Zera dio Garaik: "Saso puntu onena lortzeko, hasieran lau saio egingo ditugu astean, eta gero hirura jaitsiko dugu".



Begararrek ligako lehen garaipena lortu nahi dute bihar, Tolosaren aurkako partiduan.

JOKALARI GUZTIEI OSASUN AZTERKETA

Bestalde, joan zen uztailaren 18ko batzar orokorrean BKEko zuzendaritzak erabakitakoari jarraituz, saskibalo, eskubalo, pilota eta futbol sailtako jokalariek osasun azterketa egin behar duen denboraldia hasi baino

lehen. Gerta litezkeen arriskuak prebenitzea da zuzendaritzaren helburu nagusia. Jokalariaren gurasoek 100 euro ordaindu behar dituzte, 45 euro osasun azterketa egiteagatik eta 55 BKEko bazkide txartela eskuratzegatik. Arrasateko Atlon Medicina enpresa

arduratuko da jokalarien osasun azterketa egiteaz.

Bergara Kirol Elkartek 180.300 euro inguruko aurrekontua izango du hasi berri den denboraldirako, eta horietatik 132.200 euro futbol sailera bideratuko dira.

Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa jokatuko da domekan

E.M.

Bergara Hiria xake txapelketa jokatuko da domekan, irailaren 14an, Ipintza institutuan, 10:00etan hasita. Guztira, 100 bat jokalariek izango dira lehen, tartean hainbat nazioarteko maisu.

Mirzoev ukrainiarra, Conquest britaniarra, holandar nazionalitate duen Cifuentes eta Ubilava errusiarra izango dira, besteak beste, txapelketa eskuratzeko faborito nagusiak. Hala ere, Mario Gómez bizkaitarrak edo Feliz Ize zestoarrak ere euren aukerak izan ditzakete. Gazteen artean, berriz, Iñigo Argandoña donostiarra, Santi González bilbotarra edo Diego Sarralde durangarra bolada onean dira eta beraiek ere aurreneko tokietan izango dira ziurrenik. Bergarako Xake Taldea pozik azaldu da domekarako

lortutako partaidetzarekin. Txapelketa suitzar sistema (7R) jarraituta jokatuko da. Partidak goiz eta arratsaldean izango dira Ipintza institutuan, 10:00etan hasita. Txapelketa 20:00ak aldera bukatuko dela adierazi dute antolatzaileek. Jarraian sari banaketa ekitaldia egingo da.

ZAPATUAN GAZTEEN TXAPELKETA

Bezperan, zapatuan, gaztetxo eta gazteei zuzendutako Bergara Hiria xake txapelketa irekia jokatuko da Ipintza institutuan, 10:00etan. Nahi duten gazte guztiei txapelketan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi die Bergarako xake taldeak. Hain zuzen ere, xakearekiko zaletasuna pizteko helburuarekin, hainbat xake jarduera antolatu ditu astean zehar Bergarako taldeak.

Gaur, egubakoitza, Blitzeko Match Txapelketa jokatuko da zen Zabalotegiko aretoan, 19:00etan.



Domekako txapelketan 100 bat partaide izango dira lehen.

KARATEA

Shotokan Karate-Do taldearen denboraldi berria

Joxean Iñarrak zuzentzen duen Shotokan Karate-Do taldeak haurrei zein nagusiei zuzendutako eskolak eskaintzen ditu Ipintza institutuan. Interesatuak 615 79 90 78 (Joxean) telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

GIMNASIA

Ariznoa taldeko eskolak hasiko dira eguaztenean

Eguaztenean, irailaren 17an, Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak denboraldi berria ekingo dio. Bergaran martitzen, eguen eta egubakoitzetan izango dira. Gimnasia erritmikoan jarduteko interesa duten 6 urtetik gorako neskek 943 76 56 75 (Jabi) telefonora dei dezakete.

Bergara Hiriko irabazleak martitzenean Udal Pilotalekuan

E.M.
Martitzenean, San Martin egunean, promes eta senior mailako pilota partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bergara Hiriko irabazleak berriro ere ikusteko aukera izango dute zaleek.

Promes mailan Retegik eta Urri-zalkik irabazi zuten aurtengo Bergara Hiria, eta martitzenean Arretxe-Gomez bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Julen Retegi eta Iker Arretxe Julian Retegi eta Fernando Arretxe txapelkun handien semeak dira, eta maila bikaina azaldu zuten udaberrian jokatuak Bergara Hiria txapelketan.

Senior mailako partiduan, herriz, Eguzkitza eta Erauskin txapelkunek Muguruza-Gutierrez bikote bergararra izango dute aurrean.



Erauskin, Eguzkitza, Urrizalki eta Retegi, Bergara Hiriko azken txapelkunak.

PILOTA ESKOLA

1990-92 bitartean jaiotako gazte-
txoak irailaren 23an hasiko dira
entrenamenduetan, martitzen eta

eguenetan, 19:00etan. 1993-96 arte-
an jaiotakoak, hilaren 26tik aurre-
ra, egubakoitzero entrenatuko
dira, 17:00etan.

Senior mailako hiruko eskubaloitxapelketa zapatuan kiroldegian

E.M.
Iruñeko Anaitasunaren, Bilboko Deustuko Unibertsitateko taldearen eta Bergara KEko senior mailako eskubaloitxapelketa jokatu da bihar, zapatua, Labegaraletako kiroldegian, 17:00etan.

Ordu erdiko partiduak jokatu dituzte elkarren aurka, ligaren atarian talde bakoitzaren indarrak neurtzeko asmoz. Lehenbizi Bergara eta Deustu izango dira aurrez aurre, ondoren Deustu eta Anaitasuna eta, azkenik, Bergarak eta Anaitasunak jokatu dute.

LIGA HASIERA HILAREN 27AN

Bergarak irailaren 27an jokatu du Euskadiko Ligako lehen partidua, Basauriren aurka, Labegaraletan. Astelehenean, hilaren 15ean, gazte mailako Bergarak eta Arrasateko taldeen lagunarteko partidua izango da kiroldegian, 19:00etan.

IGERIKETA

Kirol Zerbitzuak antolatutako igeri ikastaroak izango dira irailaren 20tik aurrera

Kirol Zerbitzuak hasiera eta hobekuntza igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro horiek hurrei zein nagusiei zuzendutakoak dira eta eskolak irailaren 20an hasiko dira. Ikastaroak 10 edo 20 ordukoak dira. Interesatuak Kirol Zerbitzura jo dezakete izena ematera. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

ATLETISMOA

San Martin herri krosaren 13. aldia jokatu da zapatu arratsaldean

Zaleak atletismo taldeak antolatuta, San Martin herri krosa jokatu da zapatuan, hilaren 13an, herriko kaleetan. Irteera 19:00etan izango da San Martin plazatik. Gaztetxoek proba jokatu da aurretik eta ondoren senior eta beteranoen mailakoa. Izenematea proba hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko da, plazan bertan.

KIROLDEGIA

Yoga eta tenis ikastaroetarako izenematea zabalduko dute datorren eguaztenean


Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, eguaztenean, hilaren 17an, yoga eta tenis ikastaroetarako izenematea zabalduko da. Yoga-koak, hileko, 16,30 euro balio du bazkideendako eta 22,80 gainerakoendako. Teniskoa, 19,50 euro bazkideendako eta bestela 22,80 euro. Izenematea Kirol Zerbitzuan, aste barruan, 07:30etik 13:30era.

ARGAZKILARITZA

Kirol Argazkien Lehiaketarako lanak jasotzeko epea irailaren 23ra arte zabalik

Udal Kirol Zerbitzuak deitutako Kirol Argazkien Lehiaketa parte hartzeko epea irailaren 23ra arte egongo da zabalik. Aurtengo lehiaketaren 13. ekitaldia izango da, eta, aurrekoetan moduan, Euskal Herriko edozein argazkizalek izango du parte hartzeko aukera. Zuri-beltzeko zein koloreetako lanak aurkeztu ahal izango dira, eta modalitate bakoitzeko, gehienez, lau lan onartuko dira.

Bi kategoriotan sariak berberak izango dira: irabazleak 150 euro eta trofeoa jasoko ditu, bigarrenak 120 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 90 euro eta trofeoa. Era berean, kategoria bakoitzeko herriko onenak 60 euro eta trofeoa eskuratuko ditu.



Aseguruak:
Automobila
Istripuak
Etxebizitza
Komertzioa
Erretiratze planak
Pentsio planak
Osasuna
Bizitza

Segurari Agentzia CB
Zurradero kalea 6 B
Tel./Faxa: 943 76 17 40
20570 Bergara

Pintura eta marrazki eskolak

Edurne Eraña

Eskolak irailaren 8an hasi dira

NAGUSIAK GOIZEZ

Arrizuri 5 1C
943 76 40 14
Sakelakoa: 651 74 21 54


OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaizto **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

ELKARRIZKETA

NAROA ENEKOTEGI/MEZZOSOPRANO

“Gazteei opera erakargarri egitea falta da Euskal Herrian”

EDU MENDIBIL

Narora Enekotegi mezzosoprano lekeitiarraren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Astelehenean New Yorkera itzuli aurretik, Bergaran entzuteko aukera izango dugu.

Zelako emanaldia izango da gaurkoa?

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenbizikoan barroko garaiko kanta italiarrak eta frantsesak abestuko ditut, Dellini eta Faurerenak. Ondoren, bigarren zatian, hainbat opera aria eskainiko ditut: *Lasgia chio pianga* (Haendel-en *Rinaldo* operakoa), *Che saro* (Gluck-en *Orfeo y Euridice* operakoa), *Connaty* (Gounod-en *Mignon* operakoa), *Voce di donna* (Ponchielliren *La gioconda*) eta, azkenik, *Habanera* (Bizet-en *Carmen*ko). Aintzane Basterretxea piano jotzailearen laguntza izango dut.

Aurretik ere abestu izan duzu Bergaran. Zein oroimen daukazu?

Duela hiru bat urte izan nintzen, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan, eta gustura kantatu nuen. Hasten nengo orduan, eta jende gutxi etorri zen emanaldira. Ea gaurko jende gehiago animatzen den, kontzertua zaleen gustukoa izango delakoan gaude eta.

Lau urte daramatzazu New Yorken. Atzerrira joan beharra dago aurrera egiteko?


Gaur egun operan jarduteko, toki askotan egin daiteke lan, baina nire ahotsa lantzeko maisu aproposena New Yorken aurkitu nuen. Protero maisuarekin ari naiz lanean eta han jarraitzeko asmoa daukat. Astelehenean bertan itzuliko naiz New Yorkera, eta opera denboraldiari ekingo diot. Ia urte osoa ematen dut han eta ondo moldatu naiz New Yorkeko bizimodura. Otsailera arte-edo ez naiz berriro Euskal Herrira itzuliko.

Zertan ari zara orain?

Datorrren astean bertan *Fausto* opera egiteko entseguekin hasiko gara; *Siedel*-en papera egingo dut. Urrian estreinatuko dugu, New Yorkeko Da Capo izeneko aretoan. Ondoren, abenduan, Offenbachen *Le perichole* opera egingo dut New Yorken, eta datorren urtean, berriz, *Las bodas de figaro* eta *La italiana in algeri* egingo ditut Chicagon, Washingtonen, Connecticuten eta New Jerseyen.

Eta etorkizunean zein opera egin nahi zenuke?

Carmen, Bizetena, izugarri gustatzen zaidalako eta nire aho-



ARTXIBOA

“Gaurko emanaldiaren bigarren zatian hainbat opera aria eskainiko ditut”

“New Yorken ematen dut ia urte osoa. Urrian ‘Fausto’ opera estreinatuko dugu”

tsari ondo egokitzen den opera delako. Gainera, aktore lan interesgarria eskatzen duen opera da eta horrek asko erakartzen nau.

Zein da adin egokiena mezzosoprano batendako?

Nik uste dut 35 urte ingururakin nire maila onena eman ahal izango dudala, orduan hasten da eta ahotsa heltzen. Momentuan 25 urte ditut eta oraindik gauza asko ikasteko daukat ofizio honetan.

Bizimodu gogorra da zuena?

Gustatzen zaidana egiteko eta horretatik bizi izateko zortea daukat, eta gauza ederra da hori. Argi dago ofizio hau aukeratzeko beste gauza asko baztertu behar direla, baina pozik nago.

Operari dagokionez, Euskal Herriko entzuleria aditua da?

Bai, operazale asko dago Euskal Herrian eta emanaldietara joaten den jendeak badaki opera on bat estimatzen. Beharbada zera falta da, gazteei opera hurbiltzea, erakargarri egitea. Poliki-poliki lortuko da hori. Opera ez da jende askok uste duen bezain elitista.

Bukatzeko, baduzu ahotsa zaintzeko sekreturen bat?

Erretzea ezinezkoa da lanbide honetan eta edari hotzekin ere kontuz ibili behar dut, baina ez dut aparteko ezer egiten. Era berean, ahotsa altxatzea ere ez zait komeni; beraz, hobe da inorekin ez haserretu. (barreak)

KULTURAPILULAK

Domekan Ageriko 30. Pintura Lehiaketa izango da eta erakusketa ere irekiko dute

Etzi, domeka, izango da Ageriko Pintura Lehiaketa, 09:00etan. Beart elkarrekin antolatu du eta nahi duenak har dezake parte. Euskarriak 11:00ak bitartean markatu beharko dira kultura etxean. Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai jarriko dituzte egunean bertan, 21era arte, kultura etxean.

Jardun elkarteak antolatzen duen trikiti eskolan izena emateko epea zabalik dago

Urrian ekingo dio. Soinu eskolak martitzenetan, eguaztenetan eta zapatu goizetan izango dira. Pandero eskolak, berriz, astelehenean eta egubakoitzetan. Prezioari dagokionez, soinua 55 euro dira hiruhilabetekoa eta panderoa, berriz, 42 euro. Argibide gehiago Jardunen bulegoan eta 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 zenbakietan.

Astelehenean umeendako antzerkia Gorringo taldearekin

MONIKA BELASTEGI

Tristeak kontsolatzeko makina kale antzerkia egingo du Gorringo taldeak astelehenean. Umeendako ikuskizuna da eta San Martin plazan izango da, 19:00etan. Munduko asmatzailer hoberenak batuko dira.

Anjel Alkain aktore ezagunak gidatzen duen Gorringo antzerki taldea ikusteko aukera egongo da San Martin jaietan. Astelehenean, hilaren 15ean, izango da hori, 19:00etan, San Martin pla-

zan. **Tristeak kontsolatzeko makina** lana egingo du Gorringo taldeak. Umeendako kale antzerkia da, eta Anjel Lertxundik 1981. urtean idatzi zuen izen bereko liburuan dago oinarrituta.

TRISTURAK UXATZEKO MAKINA

Munduko asmatzailer hoberenak hurbilduko dira San Martin plazara astelehenean. Azkeneko asmakizunak erakutsiko dizkigute, eta horiek artean, tristeak kontsolatzeko makina bat dago. Makina barrura sartzen denak tristura guztiak ahaztuko ditu.



ARTXIBOA

Makinaren barruan sartzen denak tristurak ahaztuko ditu berehala.


Moises Azpiazen omenezko dantza txapelketan 16 bikote

MONIKA BELASTEGI

Azken urteotan San Martinetako egubakoitzean izan den arren, aurtun domekan izango da Bikoteen Dantza Askatuko XIX. Txapelketa, 12:30ean, San Martin plazan. Moises Azpiazu taldeak antolatu du, Moises Azpiazu zenaren oroimenez, eta 16 bikotek hartu-

ko dute parte. Horietatik bi Bergarakoak dira: Asier Ena eta Maite Lazkano eta Alex Torre eta Josune Fernández. Beste hiru bikotetan kideetako bat da Bergarakoak: Aitzol Ena (Bergara) eta Miren Illarreta (Donostia); Jon Agirretxe (Donostia) eta Ibone Baseta (Bergara) eta Xabier Azurmendi (Zegama) eta Janire Urbieta (Bergara).

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Danborradak,
azoka, suak,
musika,
sokamuturra,
kale antzerkia...
Ondo pasatu
SanMartinak!



BERGARAKO UDALA

IRAILAREN 13an BERGARAKO SAN MARTIN FERIAN

SAIHETS PINTXO DASTAKETA

San Martin plazan, 20:30ean

Antolatzaileak

L.M. REZOLA Harategia
Matxiategi, 7

JON LETURIA Harategia
Pedro de una, 24

URCELAY Harategia
Ibargarai, 16

Laguntzaileak: Xamatz eta Aritzeta taldeak



Zer jan, hura izan!

ARMAZOIA+
KRISTALA
NAGUSIENTZAT

50€ tik aurrera

eta kristal
progresiboekin

150€ tik aurrera

Estalntza baliagarria lente zuriak +5 esfera +2 zilindro

MULTIOPTICAS -en

ARMAZOIA+
KRISTALA*
UMEENTZAT

55€ gatik bakarrik

* Kristal sendo organikoa
Lente zuriendako +5 esfera +2 zilindro

bonardi helzea
ARMAZOIAK

49€ gatik bakarrik

Multi-
Eskaintzak

bonardi ARMAZOIAK

32€ gatik bakarrik


Eskaintza baliagarria 2008/09/15etik 2008/10/31ra, biak barne.



Ibargarai 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA

LEE CHUN SOO ETA ANDONI

Andoni Badiola gaztetxo bergarra Zubietara hurbildu zen abuztuan, Realeko jokariak gertutik ikustera. Mikel Etxarri Realeko teknikariak lagunduta joan zen Realekoen entrenamendua ikustera. Argazki-makina eraman zuen, eta bere idoloekin batera argazkiak atera zituen. Besteak beste, Kovacevic, Nihat, Alkiza, De Pedro, Aranzabal, Westerveld eta Rekarterekin batera atera zituen argazkiak, eta Lee Chun Soo ere kamera aurrean jartzea lortu zuen. Hori bai kromo estimatua!



JARDUNEKO GAZTETXOAK EGINON

Azken urteotako ohiturari jarraituz, ikasturtean zehar euskara errefortzuetan ibilitako gaztetxoek egonaldia egin berri dute Eginon ikasturte berria prestatzeko. 6 eta 10 urte arteko 21 neska-mutiko izan dira Eginon irailaren 3tik 6ra bitartean, eta eurekin Nekane Gabilondo, Amaia Epelde, Lorea Zurutuza eta Amaia Ortiz de Urbina begiraleak egon dira. Ikasleen euskara maila sendotzeko hainbat lan eta jarduera egin dituzte eta guztiak gustura ibili dira. Besteak beste, mendi irteerak, kobazuloetara eta inguruko herrietara txangoak, eskulanak eta beste hainbat jarduerarekin gozatzeko aukera izan dute gazteek. Orain, ikasturtean, ikasitakoa praktikan jarri behar...

*Eraman plazerra
zure etxera*

gelatzo s.l.
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

Barceló Bidaiak

Argentina oso-osorik

Irteera irailaren 28an

Bisitatu ditugu: Buenos Aires, Puerto Madryn, El Calatafe, Upsala glaziarra eta Iguazuko ur-jauziak.

Gidari laguntzailea, Donostiatik irtenda, bidaiak osoan.

2.463 €

Prezioaren barne: hegaldia Madrildik, Donostiatik Madrilerako autobusa, lau izarreko hotelak, programaren arabeko irteerak, pentsio osoko erregimena gosari bat izan ezik, bidaiako aseguruak. Tasak ez daude barne.

Beste irteera bat azaroaren 29an.



Zoaz Realarekin Estambulera!

1. Irteera irailaren 26an Itzulera urriaren 1ean
2. Irteera irailaren 29an Itzulera irailaren 30ean
3. Irteera irailaren 28an Itzulera urriaren 1ean

Informazio gehiago:

Barceló bidaiak
Zurradero 4
Tel:943 76 08 43

jobergara@barceloviaje.com



GANTXEGI
Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79

ESKULTOREBERGARARRAK GAUR


Ascensio
Esnaola

EDU MENDIBIL

Tailagile askoren maisua izan da Ascensio Esnaola (Deba, 1924). Mutikotan ikasi zuen ofizioa: "Amak agindu zidan tailagile ofizioa ikasteko, eta 14 urterekin hasi nintzen etxe ondoan zegoen Peña aroztegi". Orain dela 29 urte etorri zen Bergarara bizi izatera, eta tailagilea izan da ofizioz eta bokazioz. Erretiratu zenean ez zituen erremintak albo batera laga. Zabalotegin eskolak ematen ditu eta, horrez gain, etxean duen garajean tailertxo dauka. Han lantzen ditu piezak: "Argi dago sekula ez naizela erretiratuko. Piezak lantzea gogoko dut oraindik. Etxea apaintzeko gauzak egiten ditut batik bat: kutzak, argizaiolak... Garai batean tailagile asko zegoen Euskal Herrian, tailatutako altzariak egiteko tradizio handiagoa zegoenean. Gaur egun tailagile gutxi dago".


Intxaurrondoa da taila egiteko gehien atsegin duen egurra: "Nola-bait esatearren garbiagoa da, ez da askatzen. Gaztaina, haritza edo pagoa ere gustatzen zaizkit". Bestalde, tailagile ona izateko marrazten jakitea eta bista ona izatea ezinbestekotzat jotzen du Ascensio.

"Mutikotan ikasi nuen tailagile ofizioa, eta ez dut uste sekula erretiratuko naizenik"



E.M.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Zer zegoen kale kantoi horretan Erdi Aroan: merkata, Arruriaga jauntxoaren jauregia ala harresia?

GALDEDEBALDE

1.

Zein koloretakoak dira arropa jasotzeko jarri berri dituzten edukiontziak?

- A/ Zuriak.
- B/ Berdeak.
- C/ Horiak.

2.

Non dabil ikasten Naroa Enekotegi mezzosoprano lekeitiarra?

- A/ New Yorken.
- B/ Milanen.
- C/ Salzburgen.

3.

Zeintzuk izan ziren Bergara Hiria pilota txapelketako irabazleak senior mailan?

- A/ Muguruza eta Gutiérrez.
- B/ Eguzkitza eta Erauskin.
- C/ Arretxe eta Gómez.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NEREA AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nerea! Aurreko asteko galderen erantzunak: Bonofotoa: San Pedro kalean / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela azalduko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Creme tropical Gullon gailetak

800 g-ko kaxa

1,29 €

215 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



BERGARA
Christian Moreno
Irailaren 12an, 7urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Miriam.



BERGARA
Ainhoa Monterroso
Irailaren 17an, 5urte.
Zorionak! Amama eta
osaba-izebak.



BERGARA
Garazi Bengoa
Abuztuaren 11an, 6urte.
Zorionak! Manex, Maddi,
eta Martxelen partez.




BERGARA
Maddi Arzelus
Abuztuaren 29an, 4urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Amaia Alzelai
Irailaren 14an, 8urte.
Urte askotarako!
Oihana eta familiakoak.



BERGARA
Jon Barragan
Abuztuaren 5an, 6urte.
Zorionak! Gurasoak,
aiton-amonak eta Ane.



BERGARA
Onatz Gutiérrez
Irailaren 17an, 3urte.
Zorionak! Gurasoak eta
aiton-amonak.



BERGARA
Paula García
Irailaren 10an, 2urte.
Urte askotarako!
Familia eta ahizpa.



BERGARA
Laura Cid
Irailaren 13an, 10urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Josu Rueda
Irailaren 13an, 7urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Yoldi
Irailaren 14an, 8urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Beñat Pelicano
Irailaren 13an, 4urte.
Urte askotarako! Nagore,
Belen eta Yolanda.



BERGARA
Ainhoa Alonso
Irailaren 11an, 14urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Gorostidi
Irailaren 13an, 10urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ismene Gorostidi
Irailaren 13an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Olañeta
Irailaren 13an, 7urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Beñat Vicente
Irailaren 16an, 5urte.
Urte askotarako!
Garazi eta etxeokak.



BERGARA
Kepa Roige
Irailaren 16an, 4urte.
Zorionak! Etxekoak,
bereziki, Unai eta Alex.



BERGARA
Garazi Beristain
Irailaren 12an, 5urte.
Urte askotarako!
Haritz eta Unai.



BERGARA
Asier Madinabeitia
Irailaren 19an, urteak.
Zorionak! Joanes, Garazi
eta etxeko guztiak.



BERGARA
Amaia Madinabeitia
Irailaren 16an, urteak.
Zorionak! Joanes, Garazi
eta etxeko guztiak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**



VOLKSWAGEN TOURAN berria:


- Sei aire-zaku, ABS, EDS, TCS, ESP
- Aire girotua, zazpi eserleku, xenona, nabigazioa
- TDi berriak; 105 eta 130 ZP
- Sei martxa

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 BERGARA Tel.: 943 76 12 50



Zero kilometroko autoen kopuru mugatuak: IBIZA, CORDOBA, FABIA, POLO,... ZURE ZAIN DAUDE!



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12




Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

GIDA 04

abian!



Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira
edo bidali ondorengo helbidera:
publi@goiena.com .

**Gida Komertziala,
zure eskuetan!**

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko irailaren 12a / 169. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Beasain-Durango autobiaaren maketa ikusgai dago osoko bilkuren aretoan

AINTZANE IRIZAR

Zumarraga eta Bergara arteko zatiari dagokion maketa eta proiektua jarri ditu ikusgai Gipuzkoako Foru Aldundiak udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hilabete osoan egongo da ikusgai erakusketa hori, goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruretara.

Beasain-Durango autobiaaren Zumarraga eta Bergara arteko zatia nondik pasatuko den eta zelakoa izango den; horixe ikus dezakegu egunotan udaletxean.

Foru Aldundiko arduradunek espero dute 2007. urtean hasia errepide horretako lanekin; erakusketa orain jartzeko arrazoiak da alegazioak aurkezteko epea hil honetan bukatzen dela. Gauzak horrela, herritarrek proiektua zehaztasun osoz ezagutzeko aukera dute orain, eta, behar izanez gero, Hirigintzako teknikarien laguntza izango dute, alegazioak egiteko.

Horren harira, hasiera baten noranzko bakoitzerako errei bana egitea zehaztu zuten, baina gaur egungo proiektuan noranzko bakoitzerako bina errei egitea jasotzen da.



Deskarga gainean tunela egingo dute, eta Ipurrietekan lotune bat egongo da.

TUNEL BAT ETA BOST ZUBI-BIDE

Deskarga gainean tunela egingo dute, eta 620 bat metro luze izango da tunel hori. Bestalde, bost zubi-bide egingo dituzte Antzuolako lurretan: Ipurrietekakoa, Antiguakoa (Goizper gainean),

Lapatzakoa, Aristi baserriaren parekoa eta Igeribarrerrotakoa, hain zuzen ere.

Ipurrieteka parean, bestalde, gaur egungo errepidearekin lotuko da autobia. Antzuolak izango duen beste lotunea, berriz, Igeri-

barrerota parean egongo da, Bergarako saihebidetaren hasten den inguruan. Hasiere baten proiektuak ez zuten zehazten Ipurrietekako lotunea, baina Udalaren eskaerari erantzunez lotune hori gehitu zioten proiektuari.

HERRITARREN HITZA / Maripi Jauregi • Irakaslea

Kurtso berria, eskaera zaharrak

Aurtengoak inoiz baino azkarrago joan direla! Pasa direla!. Urtean zehar hainbeste aldiz aipatutako eta hainbeste desiotako opor horrek bukatu dira. Ze perezia berriro eguneroko trajin horretan hasteko, izan ere, gorputza ze bizkor moldatzen dan egoera lasaietara, aldiz, kostatzen jako berriz motorrak berotzea. Baina martxan jartzea kosta edo ez, egin beharra dago. Beraz ilusiñoz eta gogoz hasi deigun kurtso berri hau.

Eta kurtso berrixakin batera, udalbatza estrenau berrixa be badou eta nik

berrixak ez dien bi eskaera egin nahiko notzake berriz: pizina edo udan bainau ahal izateko putzutxo bat eta autobusa. Ze triste gelditzen dan gure herrixa udako arratsaldetan ume danak inguruko herrittako pizinetara joaten diranian bainatzera! Zer egingo dabe ba hemen? Antzuolaren neurrikuak edo

txikixauak diran beste herri batzuk badauke ba? Eta pizina posible ez izanda, ezingo litzake



"Bi eskaera egin nahiko notzake udalbatzari: pizina eta autobusa"

herriko erreka edo presaren bat egokitxu? Holako potzutxo bat eukitziak beste bizittasun bat emongo lotsake herrixai eta jentia sakabanatuta ibili biharrian bakoitza bere erara danok bilduago eta elkartuago egongo ginake.

Bigarren eskaera, autobusarena. Antzuolak, herri txikixa izanik, beste herriekiko dependentzia (kulturala, komertziala,...) haundixa dauka

eta horregatik herrittik irten biharra eukitzen dou gauza askotarako. Eta irten bihar honetan guztiz mugatuta gare bakoitzak geure kotxiak erabiltzera. Zergatik? Ez al dittugu guk beste edozeinek bezela zergak pagatzen? Ez al dauzkagu eskubide berdinarak? Badirudi ezetz. Atenditzen dien eskaerak kolektibo haundixenak dia, eta hortik kanpo bazare ba...bi aukera: insumisio fiskala praktikan jartzia (ezinezkoa) edo bihar dan lekutan indar gehixagoz eskatzia. Eta badakit erreza dala gauzak eskatzia baina, guk zergatik ez?

LABUR

Erretiratuek bidaia antolatu dute Peñiscolara

Zortzi eguneko bidaia antolatu dute erretiratuek eta 210 euro ordaindu beharko ditu bakoitzak. Bidaia joan nahi dutenek irailaren 20a baino lehen eman beharko diote izena Erretiratuen Elkarteko batzordeko kideren bati. Oraindik ez dute zehaztu noiz izango den bidaia.

Antzuola Herria Ikerketa Bekarako deialdia

Herriko toponimia jaso eta finkatzea izango da Antzuola Herria Ikerketa Bekaren aldi honetako helburua. Lan hori egiteko interesa dutenek urriaren 30a baino lehen aurkez dezakete euren proposamena eta bekarako eskaera udaletxean. Bekadunari 12.020 euro emango dizkiote.

Arropa batzeko edukiontzia jarri dute Aiherran

Aurreko astean jarri zuen Mankomunitateak edukiontzia zuria Olanaren ostean, Aiherra kalean. Arropa, oinetakoak, gerrikoak, oihalak, izarak, eta abar laga daitetzeko edukiontzia horretan. Bildutakoa irabazi asmo bariko erakundeek emango zaie, materiala kudea dezaten.

Osoko bilkurak hileko lehenengo egubakoitzetan

Aurreko asteko KONTUOLAn uztaileko osoko bilkuran hartutako erabaki baten berri eman genizuen: osoko bilkurak 08:00etan izango direla. Albiste horretan akats bat egin genuen: bilkurak hileko azkeneko egubakoitzetan egingoten direla azaldu genizuen, baina hileko lehenengo egubakoitzetan izaten dira.

ELKARRIZKETA

ANTONIO JURADO ETA MODESTO CACERES/EUSKARA IKASLEAK

“Euskara ikasleondako zailena da ikasitakoa praktikan jartzea”

Antoniok eta Modestok euskara ikasten dihardute orain dela ia hiru urtetik. Antoniok 59 urte dauzka eta Carlotan (Kordoba) ikasitakoa da; Modesto, berriz, Quintana de la Serenakoa (Badajoz) da eta 57 urte dauzka.

Zergatik hasi zineten euskara ikasten?

Antonio: Semeek beti animatu izan naute euskara ikastera, eta orain dela ia hiru urte hasi nintzen. Gazte erretiratu nintzen, eta euskara ikasten hastea erabaki nuen; behin erretiratuta, denbora libre asko daukat. Oso gustura nabil Akulu euskaltegian, Bergaran, eta eskola guztietara joaten naiz; hasi nintzenetik ez dut egun bakar baten ere hutsik egin.

Modesto: ETB ikusteko, *Goienkaria* eta *Kontuola* irakurtzeko... Horrelako gauzak egin ahal izateko hasi nintzen.

Askok esaten dute oso zaila dela euskara ikastea. Zer da zailena?

A.: Ez da erraza, baina orain, dagoeneko, bidea ikusten ari gara esan dezakegu. Niretako aditzaak dira zailenak, baina poliki-poliki aurrera goaz. Ikasitakoa praktikan jartzea ere zaila izaten da: hitz egitea zaila da.

M.: Egia da; gainera, herrian bertako euskalkia erabiltzen du jendeak, eta guk euskara batua ikasten dugunez, are eta zailagoa da ikasitakoa kalean erabiltzea. Dena dela, gero eta gehiago hitz egiteko gai naiz, eta baita irakurtzen dudana ulertzeko ere.

Zelan jartzen duzue praktikan euskara?

M.: Tebistan askotan ikusten ditut futbol partiduak, eta esan bezala, irakurtzen ere saiatzen naiz. Batzuetan, seme-alabekin hitz egiten dut, baina ez asko. Eurekin gaztelaniaz hitz egiten ohituta nago, eta ez da erraza izaten ohiturak aldatzea.



“Gero eta gehiago hitz egiteko gai naiz; baita irakurritakoa ulertzeko ere”
MODESTO CACERES

“Hilabete osoa egin dut Lazkaoko barnetegian, eta asko ikasi dut”
ANTONIO JURADO

A.: Nik Erretiratuen Elkartearen euskaraz hitz egiten dut jendearekin; gehienek euskaraz egiten didate. Erosketak ere euskaraz egiten saiatzen naiz; harategian, esaterako, dena egiten dut euskaraz. Semearekin ere dena egiten dut euskaraz.

Zu, Antonio, Lazkaoko barnetegian egon zara udan. Zer moduz?

A.: Bai, hilabete osoa egin dut hantxe, egunean sei ordu eskolak jasotzen. Oso gustura egon naiz, asko ikasi dut, baina, egia esan, nahiko gogorra izan da.

IKASTAROAK

Gimnasia eta aerobik ikastaroak irailetik

AINZANE IRIZAR

Gimnasia eta aerobik ikastaroak astelehenean, hilak 15, hasiko dituzte. Oraindik badago izena emateko aukera. Gimnasia ikastaroa astelehen, eguazten eta eguenetan izango da, 19:15etik 20:15era. Aerobik saioak ere egun horietan izango dira, baina hainbat ordutegi daude aukeran: 09:00etatik 10:00etara, 15:00etatik 16:00etara, 18:15etik 19:15era eta 20:15etik 21:15era. Erretiratuek astelehen eta eguenetan izango dituzte gimnasia saioak, 10:00etatik 11:00etara.

Goizeko saioak eta asteleheneakoak Eguzki auzoko lokalean izango dira; gainerakoak, berriz, Herri Ikastetxean.

Matrikula 18 euro ordaindu behar da, eta hileko kuota 15 eurokoa da. Kurtso osoa egiten dutenei, itzuli egingo zaie matrikula.

YOGA, PINTURA ETA ESKULANAK

Urriaren 2an yoga, pintura eta eskulan ikastaroak hasiko dira. Yoga ikastarorako bi aukera daude: astelehen eta eguaztenetan 19:00etatik 20:30era eta martitzen eta eguenetan, berriz, 15:00etatik 16:30era. 30 euro ordaindu behar da matrikula, eta hileko kuota 15 eurokoa izango da. Eskulan ikastaroa eguenetan izango da 15:15etik 17:15era, eta 90 euro ordaindu behar da. Pintura ikastaroa, azkenik, eguenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta 90 euro ordaindu behar da.



Tomate bakarrak, 1,440 kilo

Sekulako tomateak dauzka Antiguako errotako Florentinok. Aurreko astean 1,440 kiloko tomateak jaso zuen. Zeukan pisua erekin, guztiz heldu baino lehen erori zen landaretik, baina dagoeneko jateko moduan dago. Baina, ez pentsa, tomate handi bakarra denik; begira ezazue argazkian, landarean zelako bi tomate dauden! Kilo bat ingurukoak dira biak./A.I.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko irailaren 12a / 153. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Orain urbanizatuko dituzten lurretan guztira 76 etxebizitza eraikiko dituzte: 56 libreak eta 20 babes ofizialekoak.

Babes ofizialeko hogeitxetxebizitza Torrealdean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Torrealdeko hirigintza egitasmoa behin betiko onartzea erabaki du Gobernu batzordeak. Behin ingurua urbanizatu-ta, bertan 76 etxebizitza eraikitzea zehaztu dute. Horietatik 20 babes ofizialekoak izango dira eta gainerakoak, berriz, libreak.

Joan den abuztuaren 4an Gobernu batzordeak egindako osoko bilkuran hainbat gai landu zituzten. Besteak beste, Torrealdeko lurrak urbanizatzeko proiektua behin betiko onartzeko erabakia hartu zuten bertan.

Urbanizazio proiektu horren kostu osoa 1.464.295,10 eurokoa (243.638.205 pezetakoa) dela jakinarazi dute Udaleko teknikariek eta adituek.

Torrealdeko ingurua urbanizatuko duen enpresa aukeratzeko oraindik ez da zozketa publikorik egin, baina Elgetako Udaleko arduradunen esanetan, lanak hilabete honetan edo, beranduenez, datorren hilerako eginda egongo dira; hori da, behintzat, euren asmoa.

ETXEBIZITZAK

Behin lurrak urbanizatuta, bertan eraikuntzak egiteko modua izango da, eta hori da, hain zuzen ere, aurreikusita dagoena: Torrealdean 76 etxebizitza eraikitzea. Horietatik 20 babes ofizialekoak izango dira eta gainerakoak, berriz, libreak.

Hasieran Elgetan eraiki behar zituzten babes ofizialeko etxebizitzak 32 izango zirela esan zuten arren, lurren birsailkapena egitean 24 izatea onartu zuen Udalak. Baina egokitze batzuen ostean, 20 izango dira azkenik; horrela dio proiektuak

Orain, etxebizitzak nork eraikiko dituen aztertzen ari dira. Izan ere, baliteke libreak eta babes ofizialekoak enpresa ezberdinek egitea.

Etxebizitzak zozketarako izena eman nahi dutenek udaletxera jo beharko dute

BOST BLOKE

Etxebizitzak bost bloketan banatuko dituzte: hiru etxebizitza librez osatuak (bi hamaseikoak eta bestea hogeita laukoa) eta babes ofizialekoenak beste biak (hamabi eta zortzi etxebizitzakoak, hurrenez hurren).

Horren harira, Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzetako bat eskuratu nahi dutenek udaletxeko zerrendan eman behar dute izena.

Oraingoan, 110 lagun izenak daude zerrendan. Dena dela, zehaztu beharra dago izena eman dutenek informazioa jasotzeko baino ez dutela egin. Batzuek etxebizitza libreetan dute interesa, beste batzuek babes ofizialekoetan ere. Eta badira era guztietako etxeen informazioa jaso nahian izena eman dutenak ere.

Horien guztien artean zozketan parte hartuko dutenen aukeraketa nola egin aztertzen dihardu Udalak.

Ondoren zozketa egingo dute eta etxebizitza horiek eskuratzeko Gobernuak ipinitako baldintzak bete beharko dituzte jabetun suertatzen direnek.

LIBURUTEGIA

Liburutegia 20:00ak arte zabalik

I.A.

Ikasturte berrian liburutegian berritasunak izango dira. Orduetgia luzatu egingo du hemendik aurrera. Arratsaldeko 16:30ean ateak zabaldu eta irakurri zein liburuak kontsultatu nahi dituztenek 20:00ak arteko epea izango dute.

Liburutegiak arratsaldez irekitzen ditu ateak, baina orain arteko orduetgiak aldaketa txiki bat izan du ikasturtea hastearekin batera. Hemendik aurrera gaueko 20:00ak arte egongo da irekita, astelehenetik ostiralera bitartean. Orduetgia, beraz, arratsaldeko 16:30etik gaueko 20:00ak artekoa izango da.

Orduetgia luzatzeko arrazoietako bat, besteak beste, KZGunea berriz abian jartzea izan da. Denboraldi batez KZGuneako ordenagailuak erabili nahi zituztenek egun bakarra izan dute horretarako. Aste honetan bertan, ordea, berriz hasi du ibilbidea. Liburutegiaren aldamenen egongo da eta erabiltzaileendako orduetgia liburutegiak duen ber-

bera izango da. KZGunean izena emanda dutenek bertako hiru ordenagailuak erabiltzeko aukera izango dute, beraz.

Umeek eta helduek, guztiak dute baimendua sarrera liburutegira. Hala ere, proba modura orduetgi banaketa egitea erabaki dute. 16:30ean guztiak sartu ahal izango badira ere, txikienek (9 urtera artekoek) lehentasuna izango dute 18:30ak bitartean. Ondoren, helduen txanda izango da. Banaketa proba modura egin dute, eta, denen onerako dela ikusiz gero, aurrerantzean horrela jarraituko dute.

DIRULAGUNTZAK

Bestalde, Udalak jakinarazi du irakurketa bultzatzeko dirulaguntza eskaera egin diola Eusko Jaurlaritzari.

3 eta 10 urte arteko umeentzat 421 euro eskatu dituzte eta 10 eta 15 urte bitartekoentzat, berriz, 250 euro.

Eusko Jaurlaritzak erabaki beharko du orain zein laguntza eman. Diru hori herrira ipintu kontalari bat ekartzeko erabiltzeko dute.

LABUR

Etxeko traste zahar handien bilketa egunean, irailaren 18an, egingo dute

Datorren egunean, hilaren 18an, traste zaharren bilketa egingo da. Beraz, tamaina handiko trasteak eta altzariak etxean izan eta zakarretara bota nahi dituzten elgetarrei, horiek edukiontzien aldean lagatzeko dei egin nahi diete. Bilketa iluntzeko 20:00ak eta 22:00ak bitartean egingo denez, trasteak aurrez atera behar dira. Ondoren zabor-biltzaileek jasoko dituzte. Hilean bi aldiz egingo da trasteen bilketa; hurrengo urriaren 2an izango da.

Zabalik dago Sagardo Eguneko Tortilla Lehiaketan parte hartzeko izenematea

Azken urteotan moduan, aurten ere Sagardo Eguna antolatuta da Gazte Asanbladak. Irailaren 20an, zapatua, izango da eta, besteak beste, Tortilla Lehiaketa jokatu da. Horren harira, Gazte Asanbladak aditzera eman du izenematea zabalik dagoela. Edonork parte hartu dezake. Interesatuok liburutegira joanda edo gaztetxera deialduta (943 78 90 43) eman ahal dute izena. Lehiaketa arratsaldeko 18:00etan hasiko da Mendizaleen plazan.

KIROLAK

Dagoeneko eman daiteke izena Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan

I.A.

Udal Kirol Zerbitzuak hainbat kirol jardura antolatu ditu hasiberria den ikasturterako. Eta dagoeneko zabalik dago ikastaroetan izena emateko epea. Irailaren 15ean aerobik eta yoga eskolak jarriko dira abian eta gainerakoak, berriz, urriaren 2an.

Udalak antolatutako kirol jardueretan izena emateko epea zabalik dago. Interesatuak kurtsoa hasi aurretik eman beharko dute izena Udaleko Kirol Zerbitzuan (943 76 80 22) edo Bola-Toki tabernan (943 76 82 84). Aurreko ikasturtean zerbitzuen erabil-tzaile izan zirenek izen-deiturak eman besterik ez dute; ikasle berriek, aldiz, izena emateko orria bete beharko dute.

Irailaren 15ean bi ikastaro jarriko dira abian: yoga eta aerobik ikastaroak. Biak 15 urtetik gorakoentzako dira eta eskolak astelehen eta asteazkenetan izango dituzte. Yoga ikastaroak 19:15etik 20:45era izango dira, Herri Eskolan, eta aerobikekoak,


berriz, 19:00etatik 20:00etara, kiroldegiko gimnasioan. Irailean hasten direnek ez dute lehen hila-beteko matrikula ordaindu beharko. Gainontzean, yogakoek eta aerobikekoek 20 eta 15,50 euro-ko kuota ordainduko dute.

Beste bi ikastarori urriaren 2an ekingo diete. Sasoian egoteko gimnasia eta edadetuendako gimnasia ikastaroak astearte eta ostegunetan izango dira, kiroldegiko gimnasioan. Lehenengoa 16 eta 65 urte artekoentzat eta bestea, 65 urtetik gorakoentzako. Edadetu-entzako taldekoek 5,20 euro ordainduko dituzte; besteek, 9,30 euro.

Beranduen hasiko direnak gaztetxoentzako dira: 6 eta 8 urte bitarteko umeentzako oinarrizko soin hezkuntzako eskolak urriaren 6an hasiko dira, eta astelehenetan izango dira, Herri Eskolan. Horien kuota 18 eurokoa da.

ESKAINZA BERRIAK

Ikastaro horiez gainera, karate eta tai-chi eskolak eman gura dituzte eta sasoian egoteko gimnasia egiteko taldea osatu gura dute, goiztarako. Interesatuak Udal Kirol Zerbitzura jo dezakete.



GOIENKARIA

Aerobik eta yoga ikastaroak irailaren 15ean hasiko dira eta gainerakoak, urrian.



Ikasle berriak Herri Eskolara

Joan den astelehenean, hila-ren 8an, hasi zen ikasturte berria Herri Eskolan. Aurten 2 urteko zazpi ikasle berri hasiko dira eskolan, eta 3 urteko umeekin guztiak gela berean egongo dira, Miren irakaslearekin. Ikasturtea hasiberria denez, oraindik egokitze prozesuan daude umeak eta egoera berrira ohi-tzeko egunean ordubetez baino ez dira joaten gelara. Ezkerreko argazkian eskolako ikasle gaztetxoentzako agertzen dira, 2 eta 5 urte artekoak, hain zuzen ere./I.A.

LABUR

Ehunkiak batzeko edukiontzi zuria Berraondokuan

Mankomunitateak ehunkien bilketa zerbitzua jarri du abian. Horretarako, edukiontzi zuria ipini dute Berraondokuan. Etxean soberan ditugun arropak, oinetakoak, oihalak, izarak... laga daitezke bertan, plastikozko poltsa itxietan, bilketan eta garraioan busti ez daitezken. Arropak sailkatu eta apaindu ondoren, irabazi asmorik gabeko talde sozialei banatu, garapen bidean dauden herrietara bidali eta bidezko merkataritza-zako dendetara joango da.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK


ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergara
futbol taldea,
3. mailan

Abian da futbol denboraldia, eta Bergarako futbol talde nagusiak dagoeneko jokatu du ligako lehen partidua. Hirugarren mailara itzultzeko lehian jardutea da mahoneroen asmoa.

Alboko argazkia Bergara hirugarren mailan zegoeneko duzue. Argazkia 1984ko urtarrilaren 15ean aterata dago. Egun hartan Bergara eta Mondragon taldeak izan ziren aurrez aurre Agorrosinen. Partiduaren atarian Bergara KEko zuzendaritzak omenaldia egin zion taldea utzi berria zuen Antxon Arazkonagari. Arazkonagak 16 urte eman zituen Bergarako taldean, hainbat kategoriatan. Atzean jokatzeko zuten, eskuinaldean, eta taldeko kapitaina izan zen. Penaltiak Antxonek jaurtitzen zituen askotan.

Juan Luis Arregi zen sasoi hartan taldeko entrenatzailea. Esan beharra dago taldea hainbat urtez egon zela hirugarren mailan. Hona hemen argazkian agertzen diren jokalariak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Angel Biain, Julian



Arriaran presidentea, Juan Ignacio Piti Madariaga, Miguel Kalboetxeaga, Victor Garin eta Fernando Juaristi.

Makurtuta: Pina, Juan Carlos Hernández, Ibon Gallastegi, Gregorio Txiki Lakunza, Carlos eta Agustin.

Argazkia: BKEko artxiboa

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Etxebizitzak
San Antonion

San Antonio auzoak itxuraldaketa nabarmena izan du azken urteotan. Besteak beste, Antzuola erreka bideratzeko lanak egin behar izan dira, egoera txarrean zeuden hainbat etxebizitza zahar bota egin dituzte eta haien lekuan babestutako etxebizitzak eraiki dituzte. San Antonioko ermitari ere agur esan zioten auzotarrek. Eraikin zaharrek babestutako etxebizitzetara egin diete lekua.



≈ 1995 San Antonioko babestutako etxebizitzaren lekuan zegoen orubea. Bertan 36 etxebizitza egin dituzte, bi bloketan.



2003 Babestutako etxebizitzaren bigarren blokea eraikitzeko lanak aurrera doaz. Etxebizitza horietako zozketa bidez adjudikatu dituzte.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK

Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK

SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTARROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiah.
EGA eta EGAtik gorakoa.
HIZKUNTZA ESKARIZUNetarako prestakuntza.
Egokitutako taldeak:
Guraso, merkatari, enpresa, etab.
MULTIMEDIA gela.

Erritmoak:

Eskarien araberako erritmoak. Galde ezazu!

Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-13:00 • Arratsaldez: 14:30-18:30.

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 1etik 19ra.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesionali, familiarrekoei, kulturali egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAKEZU!



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!

UDAL
EUSKALTEGIAK

BERGARAKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

BERGARAKO Udal Euskaltegia-Zabalotegi 13 • 20570 BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA